



EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 27koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik kanpo geratu diren izangaien behin-behineko zerrenda (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez ditu zen)

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez (2019ko martxoaren 7ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen.

Aipatutako aginduaren 2.1.f) oinarriak ezartzen duenez, irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharra dago hautaketa-prozesuan parte hartzeko.

2.6.2 oinarriari jarraikiz, Langileak Kudeatzeko zuzendariak epe bat ireki zuen (2019ko maiatzaren 20tik 24ra arte, biak barne) izangai onartuek eta baztertuek (baldin eta gora jotzeko errekurtsioa jarri badute eta ebatzi gabe badago) aurkez zezaten irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizunaren homologatuak diren hizkuntza-titulazioa edo ziurtagiria, edo ziurtatzeko salbuetsita dagoela adierazten duen ziurtagiria (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan aurreikusia). Halaber, Hezkuntzako hizkuntza-eskakizunak egiaztatze deialdiko emaitzak argitaratu dira.

6.2.6 oinarriarekin bat etorritik, eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez daukaten izangaiak, salbuetsita ez dauden izangaiak edo 2.1.f) oinarriak aurreikusi duen erregimen iragankorraren arabera egiaztatze salbuetsita ez daudenak, probara aurkeztu ez badira edo, aurkeztuz gero, «gai» kalifikazioa jasotzen ez badute, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Hori dela eta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduran hizkuntza-eskakizuna ez egiaztatzeagatik kanpo geratu diren izangaien behin-behineko zerrenda (hautaketa-prozedura Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez ditu zen).

2. artikulua.- Ebazpen hau eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz): «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) – «Emaitzak» – «Hizkuntza-eskakizuna».

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> - «EPE 2019. Maisu-maistrak, Kontserbatorioak eta HEO» - «Aurreko probak: gaztelania eta euskara» – «Irakasleen hizkuntza-eskakizuna ziurtatzea».

3. artikulua.- Ebazpen honen aurka, izangaiak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, bost laneguneko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 27a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
JON KARLOS AGUIRRE HUERGA.